

Lekeitioko XIII Itxas Soinuen Jaialdia

Donostiako 52. Musika Hamabostaldia



Ainhoa Arteta izango da gaur protagonista nagusia Lekeition.

AITOR BAYO

Ainhoa Artetaren kontzertuarekin gaur bukatuko da erakustaldia

I.E. / **BILBO**

Gaur amaituko da aurtengoz, Lekeitioko 'Itxas Soinua' abesbatzak hamahirugarren urtez antolatu duen musika erakustaldia. Azkena emateko, eta bi egun tresna bidez egindako musikarekin aritu ondoren, ahotsez egindakora itzuliko da.

Ainhoa Arteta, azken aldian hainbeste oneritzi lortzen ari den soprano tolosarra arituko da kantuan gaur gaur, Alejandro Zabala pianoarekin lagunduta. Rossini, Donizzeti, Bizet, Puccini eta Verdi-ren lanak aukeratu ditu kontzerturako, eta Bizet-en 'Carmen' eta Verdi-ren 'La Traviata' opera ezagunen zatia ere kantatuko ditu.

Kontzertuari amaiera emateko, 'Itxas Soinuak' hurrek kantatuko dute, aurreko ostegunean bezala,

baina gaur, euren zuzendari, eta Ainhoa Artetaren aita den Jose Ramon Artetaren azken obraren zati bat estreinatuko dute, 'Udaberria' deiturikoa.

Ainhoa Artetak, hamasei urtekin hasi zituen musika ikasketak, Donostiako Musika Kontserbatorioan. Hala ere, laster aldegin zuen bertatik, eta Italian jarraitu zuen musika lantzen, Maestro Ettore Campogalliani-ren eskolan. Han ikasitakoekin asetu gabe, 1989. urteko hasieran, New York-era joan zen, ikasketak, Franco Iglesias maixuarekin jarraituz.

Urte horretan bertan, OMTI kantu lehiaketa irabazi zuen Artetak, eta EEBN kantatu zuen lehengo aldiz, Rossini-ren 'Cenerentola' operan Clorindarena eginez. Anton Guagano-k zuzendu zuen opera hau.

Duodeno taldeak 'Pasen y mueran' emango du azken aldiz Donostian

DONOSTIA

Duodeno antzetzalde talde donostiarrek 'Pasen y mueran' ('Pasa eta hil zaitezte') izeneko lana antzetzuko du bihar eta etzi, Donostiako Antzoki Zaharrean. Hau izango da taldeak emanaldi hau eskainiko duen azken aldia. Espainia, Venezuela eta Cuban eman izan dute obra hau Duodeno taldekoek.

Antzezlan gehiago ere bada Donostian egun hauetan. Teatro de Hoy izeneko konpainia 'La Malcasada' ('Gaizki ezkontutako emakumea') izeneko lana erakusten ari da, herenengundik hasita. Teresa Rabal aktore espainiar ezagunak hartzen du emanaldi honetan. Lope de Vegaren obra batean oinarriturik Gonzalo Vergelek egindako moldapena da 'La Malcasada'.



Jose Mari Gonzalez Bastidaren obrekin zabalduko da XX mendeko musika zikloa

Easo abesbatzak kantatuko ditu koruentzat konposatutako lanak

Bihar hasiko da XX mendeko musikari eskainitako zikloa. Xabin Bikandi, Alejandro Zabala, Varujan Cozighian, Richard Vandrak eta Easo abesbatzak Jose Mari Gonzalez Bastidaren kantuak eskainiko dituzte.

J.L.ZABALA / DONOSTIA

Astelehen gaueko 8etan izango da emanaldi hau, Udaletxeko areto nagusian, eta Jose Mari Gonzalez Bastidak txistu, piano eta biolontxelorako konposatutako lanak entzungo dira lehen zatian; bigarrean, berriz, abesbatzentzat konposatutako lanak, Ramon Berazak zuzenduko duen Easo abesbatzaren eskutik.

Jose Mari Gonzalez Bastida Bergaran jaio zen 1908ko irailaren 10ean. Bere aita Udal Bandako zuzendaria izan zen. Gaztetatik ikasi zuen musika, etxean bertan. Luis Urteaga eta Juan Lamotte de Grignonekin harmonia eta konposizio ikasketak egin zituen. Zumaiako Udal Bandaren zuzendari izendatu zuten 1931n.

Donostiako Easo abesbatzaren eta Irungo Udal Bandaren zuzendari izan zen 1958tik aurrera. Horretaz gain, lan ugari ere sortu zuen berak: 'Etxai Larre' opera sinfonikoa estreinatu zuen 1932an Donostiako Orkestra Sinfonikoaren eskutik, eta 1933an Donostiako Orfeoik antolatutako lehiaketan lehen saria irabazi zuen, 'Gabon gabeen erroindari' lanarekin. Harrez gero, etenik gabe aritu izan da konposizio lanetan.

Gonzalez Bastidaren lanak interpretari onen eskuetan izango dira gaur, lehenengo partean: Xabin Bikandi txistularia Donostiako Kontserbatorioko ohorezko saria jasoa da. Alejandro Zabala 'Masterclas-



Easo abesbatza arituko da biharko ekitaldiko bigarren aldian.



Alejandro Zabala.

es' izeneko ikastaroetan aritua da, eta Tolosako (Frantzia) Nazioarteko Lehiaketako pianojole ofiziala, eta baita Bilboko Lehiaketakoa ere.

Varujan Cozighian bibolinjole errumaniarra 18 urterekin hasi zen kontzertuak ematen, eta gaur egun

✓ Xabin Bikandi, Alejandro Zabala, Varujan Cozighian eta Richard Vandrak joko dituzte kantu instrumentalak.

Bilboko Orkestra Sinfonikoko kontzertinojolea da. Richard Vandrak biolontxelojole txekoslovakiarra Bilboko Orkestra Sinfonikoko bakarlaria da gaur egun.

Easo abesbatza donostiarra Ramon Berazaren zuzendaritzapean arituko da bigarren zatian. Abesbatz honek Musika Hamabostaldian parte hartzen duen hamargarren aldia izango da aurtengoa.

Gaur ere izango da emanaldi berezi bat Musika Hamabostaldiaren barne: Maria Bayo soprano nafarra eta Alfonso Etxeberria baritono donostiarrek hainbat zati liriko abestuko dituzte Ereserki abesbatzaren laguntzaz, Santa Mariako basilikan, goizeko 11etan.

TEATRO PRINCIPAL-ANTZOKI ZAHARRA

Bihar Astelehena 19, 22,00etan eta
Etzi Asteartea 20, 20'00 eta 23'00etan

DUODENO teatroak

aurkezten du

"Pasen y mueran"

Antzezleak: Isabel Ripoll, Itsaso Azkarate, Carlos Odriozola, Agustin Arrazola eta Ramon Agirre
Zuzendaritza: Carlos Zabala

Farrez hiltzeko !!

Takila orduak:
11'30-13'30 / 17'30-23'00
ANTZERKIDE tfnoa 48.11.55

BAKARRIK
2
EGUN



Donostiako Udala
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA